



**Arartekoaren ebazpena, 2012ko azaroaren 12koa. Horren bidez, Iruarteta HLHIko hezkuntza eskaintza zabaltzeari buruzko jarduerari amaiera eman zaio.**

### Aurrekariak

1. Iruarteta HLHIko hezkuntza komunitateko ordezkariak kexa berri bat aurkeztu dute erakunde honen aurrean Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak hezkuntza zentro horretarako programatutako hezkuntza eskaintza zabaltzeko hartutako erabakia dela-eta.

Aurreko egoeretan bezalaxe, kexa horren sustatzaileek erakunde honen aurrean hezkuntza zentro honen eskola barrutiaren hezkuntza eskaintzaren plangintzan eta programazioan parte hartu ez izana salatu dute eta, era berean, Iruarteta LBHI lau lerroko ikastetxe gisa konfiguratzeko erabakia hartzeko izan dituzten arrazoiei buruzko azalpena eskatu dute.

2. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko arduradunek erakunde honek egindako lankidetzaren eskaerari erantzuteko eskaintako idazkian zera azaldu dute:

*“Idazkian azaldutako gainerako galdera guztiei dagokienez, erabakiak hartzeari buruzburuz plangintza kontuaren inguruan, eta, bereziki, geroago Iruarteta HLHIk izango duen dimentsioaren gainean, gogoratu egin beharko da aipatu 21/2009 Dekretuan xedatzen dena:*

*(...)*

*Sailak bere aldetik erabakiak hartu beharra dauka ezinbestean Miribilla auzotegiko eskaintzaren plangintza egoki eta globala egiteko xedez, eta kontsultak egiten ari dira, eta horrela egingo da geroago, sartuta dauden ikastetxeekin.*

*Inguru horretan egin zen bilera bat Lurralde Ordezkaritzan urtarrilaren 25ean, urtarrilaren 27ko idazkian aipatzen dena, hain zuzen ere.*

*Bilera hartan honako hau adierazi zioten Iruarteta HLHIko ordezkariak:*

- *Azken bi urteetan zehar Sailak azaltzen jardun zuen egokitu beharra dagoela Miribillako hezkuntza eskaintza oraingo eta geroko eskariari, eskola-posturik eza dela eta; izan ere, egoera hori salatu egin dute auzoko hainbat taldek eta bertan dauden eskola-elkarte guztiek.*



- *Aipatu eragileekin batera lankidetzan eta elkarrizketan dihardugarik, denboraldi horretan zehar ekintza batzuk garatu dira bi helbururekin. Bata, eskola-postu libre gehiago egotea onartzeko prozesu bakoitzean, eta bestea, orube batzuen lagapena lortzea Udalaren aldetik; izan ere, horiexen gainean eraikiko dira eskola-ekipamenduak, postuen eskaintza globala zabalduko dutenak epe labur eta ertainera.*
- *Sailak osagai berriak zeuzkan berekin auzotegiaren plangintza globala errazte aldera, lurzoru erabilgarritasuneko aurreikuspenen ondorioz Bilboko Udalaren aldetik eta aurrekontuko erreserbari dagokionez behar diren obrak proiektatu eta gauzatzeko xedez eskola-postuen eskaintza zonaldearen premi guztiei egokitze aldera Lehen eta Bigarren Hezkuntzan. Gauza eta gertaera berriok jakinarazi zitzaizkion Iruarteta HLHIko eskola-elkarteari astebete eskaseko epean berretsi zenez geroztik.*
- *Sailak, zirkunstantzi aberriekin batera, programatuak zituen urrats batzuk, zera lortzera eramaten dutenak:  
2012-13 ikasturtean postu publikoen eskaintra Haur Hezkuntran (2 urte) sartzeko aski izatera eskari osoari erantzuteko.  
2014-15 ikasturterako -Iruarteta HLHIko lehen promozioa Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzara iragateko unea-, jarraipena bermatuko zaie Institutu hurbilenean nola aipatu ikastetxeko ikasleei hala gaur egun San Adrián BHIIn ibilbidea duten ikastetxeetako ikasle guztiei.*

*Ekintzen programazio horren berehalako ondorioak honako hauek ziren Iruarteta HLHIren kasuan:*

- *90 postuko hasierako eskaintza sendo berrestea 2012- 13ko onarpeneko prozesuan bi urteko adinerako.*
- *Ikastetxea lau lerrotara zabaltzea argi aurreikustea.*
- *San Adrián BHIIn behar adina postu egotea berrestea 2014-15 ikasturtean Iruarteta HLHIko ikasleak onartzeko xedez.*

*Bileran jaso zen ikastetxearen iritzia proposamenaren aurrean eta zentroari esan zioten bere ekarpenak aurkeztu zitzala, baina beti ulertuta progresiboki hartu beharreko erabakiak ezin atzeratu daitezkeela denboran, baldin eta horrek arriskuan jartzen badu helburuak betetzea, postuen nahikotasunari dagokionez, dagoeneko 2012-13 eta 2014-15 ikasturteetarako aipaturik.*

*Ikastetxeak aukera batzuk aurkeztu dizkio geroago zentroa lau lerrotara zabaltzeko asmoari, eta Sailak horixe aztertzen dihardu orain auzotegiaren ikuspuntu global batetik.”*





3. Hala eta guztiz ere, kexagileek berriro ere euren ezinegona eta kezka adierazi dute erabaki berri horiek hartzeko moduarengatik (*"gainontzeko hezkuntza agenteek parte hartu gabe eta behar bezala arrazoitu gabe*) eta hurbileko etorkizunean erabaki horrek eragin ditzakeen ondorioengatik.

Zentzu horretan, zentro horretako ikasleak eskolatzeko baldintzak egokiak ez izatearen beldur dira, beharrezkoak diren eremuak eta segurtasun neurriak falta direlako. Hori dela-eta, zonalderako beste plangintza aukera orekatuagoak ezartzeko aukera defendatzen dute. Aukera horiek, gainera, azaldu dutenaren arabera, beste hezkuntza zentro batzuen babesa dute, Ibaiondo plataforma eta BIGE elkartearena hain zuzen. Gainera, zera gogorarazi dute: *"la propia Delegación en el verano 2011 todavía aseguraba que Iruarteta no sería de cuatro líneas hasta que los demás Centros de la zona ampliaran también su oferta..."*

### Gogoetak

1. Aurreratu dugun moduan, erakunde hau lehenago ere hezkuntza zentro horri eragiten dioten plangintza neurriei buruz mintzatu behar izan da. Duela hilabete batzuk, erakunde honek 2012ko urtarrilaren 31ko Arartekoaren Ebazpena eman zuen, hezkuntza zentro horretara Mujika-Solokoetxe HLHIko ikasleak eramateko hartutako erabakia zela-eta, azken hezkuntza zentro horren eraikinaren egitura erreformarako lanengatik.

Une hartan jada, jarduteko genituen aukerak aztertzean, gure ustez hezkuntza programazioko edo plangintzako kontuei buruzko gaiak jorratzen direnean nahita ez kontuan hartu beharreko alderdiak aipatu genituen: alde batetik, egoeran sartuta dauden hezkuntza agenteen parte-hartzea eta, bestetik, hartutako erabakien motibazio betea.

Une hartan, gure esku-hartzeari amaiera emateko adierazi genuenez, erakunde honen ustez, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak, Mujika-Solokoetxe HLHIko ikasleak lekualdatzeko erabaki hori hartzean, egoeran sartutako hezkuntza agente guztien parte-hartze eraginkorragoa bultzatu behar izan zuen eta bidera zitezkeen aukera guztiak modu arrazoituan aztertu behar izan zituen dagokion plangintza ahalmenaren erabileran bere jarduera zalantzan jar ez zedin.

2. Era berean, une honetan adierazi beharra dugu, Iruarteta HLHIren hezkuntza eskaintza laugarren lerro batera zabaltzeko administrazio erabaki berri horren berri izateko bideratu dugun esku-hartzeak antzeko ondorioetara garamatzala.

Puntu honetara helduta, beharrezkoa iruditzen zaigu eskola zentro horretako hezkuntza komunitateak hezkuntza administrazioak hartu dituen plangintza neurriekiko aurkakotasuna justifikatze aldera egin duen ahalegina onartzea eta





azpimarratzea. Hizpide dugun kasuari dagokionez, neurri horiek laburki aipatu ditugu ebazpen honen hirugarren aurrekarian.

Horren aurrean, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak Miribilla auzoak bere osotasunean dituen plangintza beharrak aipatzen ditu, hezkuntza komunitate horrek inguruko gainontzeko hezkuntza zentroekin parekatuz euren eskolatzen baldintzak zalantzan jartzen dituztenean aurkeztutako alegazioak xehetasun gehiagorekin aztertzea ekiditen du eta ez ditu bestelako aukerak aztertzen.

Berriro ere, kontua da ezin dugula esan arbitrariotzat har dezakegun plangintza erabaki baten aurrean gaudenik. Hala eta guztiz ere, azpimarratu behar dugu hezkuntza administrazioa bidera daitezkeen aukera ezberdinak sakonki aztertzen saiatu behar dela eta horrela bada bere azken erabakien ontasuna azaldu.

3. Ezin dugu ebazpen hau amaitutzat jo Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak plangintza neurri horien eragina jasaten duten hezkuntza agenteen parte-hartzea ikusteko duen modua aipatu gabe.

Eskainitako informazioan, sailak zera azpimarratzen du: *“progresiboki hartu beharreko erabakiak ezin atzeratu daitezkeela denboran, baldien eta horrek arriskuan jartzen badu halburuak betetzea, postuen nahikotasunari dagokionez.”*

Egia da ezin dela ukatu programazio helburu jakin batzuk lortzeko erabakiak hartzean eragindakoek parte hartzeko dituzten aukerak nahitaez mugatzen dituzten epeak kontuan hartu behar dituztela.

Baina hala eta guztiz ere, eta baldintza hori ukatu ezin dugun modu berean, kontuan hartu behar dugu parte-hartze printzipio hori zentzuz bideratu eta betetzeko eragindako guztien arteko eztabaidarako aukera egon behar dela. Osterantzean, unibertsitateaz besteko ikastetxeen sarea antolatzeko eta planifikatzeko irizpideak ezartzen dituen otsailaren 3ko 21/2009 Dekretuaren xedapenak bideratutzat joko lituzkeen formalitate huts baten aurrean egongo ginateke, halako neurrien eragina jasaten duten zentroen nahitaezko entzunaldi izapideari dagokionez, baina inolako edukirik gabekoa.

Bere erantzunean, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak, auzoko ikuspegi global batetik, zentroa lau lerrotara zabaltzeko aurkeztutako aukerak aztertzen ari dela adierazi du. Hori dela-eta, kexa berri horren ondorioz hasitako esku-hartze honi amaiera ematea erabaki dugu, ondoren datorren ondorioarekin laburbiltzen dugun ebazpena eskainiz





## Ondorioa

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak Iruarteta HLHren hezkuntza komunitatearen parte-hartze erreal eta eraginkorra bultzatu behar du hezkuntza zentro horren eta bere hezkuntza zonaldearen inguruan hartzen diren hezkuntza programazioko erabakietan plangintza ahalmenaren erabilerari dagokionez zalantza berriak sor ez daitezen.

